

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 278. zenbakia. 2019ko maiatza

Damaris Pan, afizioa ogibide bihurtuta



Barruan,
Ermua eta Mallabiko
Udal Hauteskundeen
emaitzak





IRAZABAL
clínica dental

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. GALDETU



Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

IES UNIBHI

HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA

EKAINAREN 3tik 14ra

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

- HEZIKETA FISIKOA
- INFORMATIKA
- MARKETIN ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRAZIOA

+ PROIEKTUAK

- | | |
|----------------------------------|----------------------------|
| -Praktikak Atzerrian (ERAMUS+) | -UNI Encounter |
| -Lanbide-Heziketa Duala (HEZIBI) | -UrratsBat |
| -Ikaskuntzak Eszenatokiak | -Hizkuntzaren Normalkuntza |
| -Osasunarentzako Programa | -Nazioarteko Ikasle-trukea |
| -Enpresa Birtuala | -Ikasle Lan Poltsa |



www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus
TEL: 943 20 84 44

www.facebook.com/iesunibhi

[uni.eus](https://www.instagram.com/uni.eus)

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ross Willows.

LAGUNTZAILEAK:

Mallabiko Eskola, Antonio
Hernández 'Cuco',
Patxi López, Roberto Tejada,
Alicia Lorenzo eta Valentin
Mugarza.

ARGAZKIAK:

Eider Gisasola, Iraitz Udabe,
Irati López,
Estibalitz González,
Mallabiko Eskola,
Valentin Mugarza,
Mireia Alonso eta
Dorleta Vidal

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Erronda kantua

Euskaldun jaio nintzan

Euskaldun jaio nintzan
euskeraz naz hazi,
euskera eustalako
amak erakutsi.
Euskera laztan maite
zugaz nahi dot bizi
ta euskera hil ezkeru
ez dot gura bizi!



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Irati López (Italia)	ERREPORTAJEA..... 16-17 Hostión, leku-izen baten bixikeriak
ELKARRIZKETA5-7 Miguel Goikoetxea, Eider Gisasola eta Iraitz Udabe	IRITZIA 18 %100 ama
MALLABIAN ZER?8-9 Damaris Pan artista	ZORION-AGURRAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
ESKOLEN TXOKOA 10 Mallabiko Eskolako berriak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
HAUTESKUNDEEN GEHIGARRIA 11-14 Ermua eta Mallabiko emaitzak	SAREAN GALDEZKA21 Zaborrak biltzeko sistema
MOTZEAN 15 San Juan	EKAINEKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Irati López

Otsailetik maiatzera Toscanako hiriburuan izango da Irati López mallabitarra. Inolako aurreiritzirik gabe joan zen, baina beldur handiz, eta egun onartzen du esperientzia errepikatuko lukeela begiak itxita.

- Florentziara joatea erabaki erraza izan zen?

Ez, ez zen erraza izan. Iaz galdetu ziguten ea nor animatuko zen praktikak kanpoan egitera. Nik berehala eman nuen baietza, baina eguna hel-tzen zihoan heinean beldur handia sartu zitzaidan. Hala ere, Florentziara heldu nintzen egun berean joan zitzaidan beldurra, eta errepikatuko nuke esperientzia hau, dudarik gabe.

- Nola imajinatzen zenuen herrialdi hura?

Ez dakit, ez nuen ideiarik izan nahi. Hau da, etorri nahi nuen, eta hiriak ni harritzea.

- Eta zerk harritu zaitu gehien?

Hasteko, hemengo ordutegia oso desberdina da: bazkaria eta afora oso goiz egiten dituzte. Harremanak direla-eta, orokorrean errespetu handikoa direla esango nuke, baina egia da denetarik ikusten dela. Bestalde, eguraldiari dagokionez, otsailean eta martxoan izugarrizko eguraldia egin zigun, eta apirilean eta maiatzan nahiko eskasa.

- Eta nola moldatzen zara hizkuntza-ekin?

Esaten dute italiara eta gaztelania nahiko berdinak direla eta errez uler-

tzen direla, baina ni hasiera batean nahiko galduta ibili nintzen. Gainera, nire lanak zerikusia du pertsonekin, nerabeekin hain zuzen ere, eta zaila egiten zitzaidan haiekin elkarrizketa bat izatea. Baina egunak pasa ahala gero eta errazagoa egin zait komunikatzea.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Gertukoak faltan botatzen ditut, baina espero nuena baino gutxiago; Florentzian lagun artean bizi naiz, eta oso gustura gainera. Bertako lagunak faltan botatzen ditut, beraiekin juerga on bat botatzeko gogo handia daukat! Kalimotxozalea naiz eta hemen ez dakite ze edari den. Hala ere, zerbitzari batzuei erakutsi diet nola prestatzen den kalimotxo on bat.

- Gustura zaude bertan? Nolako da zure egun arrunt bat?

Oso gustura nabil. Goizetan turismoa egiteko aprobetxatzen dut, edota deskantsatzeko ere. Arratsaldetan, berriz, lanera joaten naiz. Nerabeei zuzendutako zentro batean egiten dut lan, eta oso gustura nago bertan. Egun zailak ere badaude, gazte hauek aldaketa handiko adinean daudelako, eta zaila izaten da batzuetan haiekin hitz egitea. Hala ere, ez nuke lanaz aldatuko.



Bestalde, nire denbora librean lagunekin egotea gustatzen zait, beraiekin bidaia ezberdinak egitea, edota terraza batean zerbait hartzea.

- Mallabira bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai, bueltatuko naiz, baina hemen geratzeko aukera emango balidate, ziur asko hemen geratuko nintzateke. Horrela izanez gero, egun batzuk Mallabira bueltatuko nintzake nire gurasoak, ahizpa eta aiton-amonak besarkatu ahal izateko.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Albert Einsteinek esan omen zuen erle barik gizakiak 4 urtez biziraun ahalko lukeela. Izan ere, Europa osoan, laborantza-espezien eta landareen %84 erleen polinizazioari esker bizi dira, Nazio Batuen Erakundeko Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen (FAOren) arabera. Eta Euskal Herriko uzten %60tik gora intsektu polinizatzaileen mende dago. Gizarteko estamentu guztiak errealitate honetaz jabetzeko helburuarekin, FAOk maiatzaren 20a izendatu zuen iaz Erleen Nazioarteko Eguna. Baina herritar arruntok honen jakitun izaten hasi garen honetan, erlegintzan dihardutenak neurriak hartzen hasita daude. Miguel Goikoetxea ermuarrak, eta Iraitz Udabe eta Eider Gisasola mallabitarrek badute zer esan.



Miguel Goikoetxea, erlezain ohia:

“Erlea zaindu behar da, berau barik ez dago mundurik”

Kasualitatez hasi zen erlegintzan 40 urtetik gora zue-nean, urte guztirako etxerako erosten zuen ezta ezin lortuta. Erlekumea topatu, zapata kaja batean sartu, etxera eraman, eta 48 erlauntza izatera heldu zen Rivas de Tereson (Errioxan). 40 urtez aritu eta gero, duela 10 bat urte utzi zuen erlegintza.

- Zertan geratu dira Errioxan zenituen erlauntzak?

Galdu dira. 20 bat basoan utzi nituen, baina basurdeek apurtuko zituzten, eta beste batzuk Errioxako diputazioak kendu. Han laga nituen, bastidoreak, prentsak, zentrifugatzaileak...

- Zenbat ezti ekoizten zenuen urtean?

Bilboko uholdeen urtean (1983an), 27 erlauntz nituen, eta 800 kilo ezti atera nuen. Ezti oso ona zen, %8ko hezetazuna zuena (%12tik behera bikaintzat hartzen da).

- Betidanik izan dituzu erleak gustuko?

Ez, beldurra ematen zidaten, baina azkenean afizio handia hartu nuen. Eurekin familiarizatu egin behar da, eta jakin behar duzu noiz hurbildu zaitezkeen. Hotzarekin, hobe bakean lagatzea! Niri ez dit inork ezer irakatsi, erleek erakutsi didate nola tratatu. Jantzi bezirik gabe ibiltzen nintzen, eta sarritan joaten nintzen erlauntzaren gainean jarri eta purua erretzera, lasai-lasai!

- Zeintzuk dira bere aurkariak?

Errentagarritasuna. Alde batetik erleak edukitzea ez da errentablea, hemen ez dagoelako lursail handirik. Bestalde, pestizida pilo bat erabiltzen da, eta horrek erleak hiltzen ditu. Tartean Roundup-a dago, eta duela gutxi onartu dute minbizia sortzen duela.

- Zer diozu Asiako liztorraz?

Mehatxua da, baina desagerrarazi daitekeelakoan nago. Varroa akaroa kaltega-



rriagoa iruditzen zait: Erleen arrautzak dauden gelaxkan sartu eta kumea hazten doan heinean, berau jaten doa (hegoak, hankak...). Erleak jaio orduko elbarriak dira. Honen kontrako tratamendua asmatu dute jada. Beste akaro bat ere badago, kumeen bronkioetan sartzen dena: Erleak ez du behar den moduan arnasa hartzen, kanpora irteten da arnastera, eta hotzak hiltzen du. Honek konponbide eskasa du.

- Zergatik dago hain lotuta erlea eta gizakion bizirau-pena?

Jaten dugun guztia erletik dator, erletik eta beste in-sektu polinizatzailetik. Lore barik ez dagoelako fruiturik, eta loreak egoteko haien polena mugitu egin behar da. Erle batek gramo bateko polen bola bat eraman dezake lore batetik bestera. Horregatik zaindu behar dira, haiek barik ez dago mundurik.

Dorleta Vidal



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



**OSASUNA · ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Eider Gisasola eta Iraitz Udabe, erlezainak:

“Loraldian pestizidarik ez erabiltzea lagungarria litzateke”

Hiru urte daramatzate Eiderrek eta Iraitzek erleak hazten. Hiru eta hamaika erlauntz dituzte hurrenez hurren, eta horietako bakoitzean 60.000 erle egon daitezke urteko sasoirik onenean, San Juan inguruan.

- Zer dela-eta hasi zineten erlegintzan?

Eider: Nire etxe aurreko sagarrondo batean erlekume txikia agertu zen, hartu eta kutxa batean sartu genuen. Nire aittittek urte askotan erleak izan zituen, beraz nire etxean erleak ezagunak ziren. Nik ez nekien ezer honen inguruan, eta ikastaro bat egin nuen.

Iraitz: Bai nire bikoteak bai nik beti izan dugu naturarekiko interesa, animaliak izan ditugu etxean... Behin azoka batera joan ginen, Debako eztagile batzuekin hitz egin, eta ikastaro bat aipatu ziguten. Ikastaro hori egin nuen, eta bertan Eiderrekin topatu nintzen.

- Zer nolako zaintzak eskatzen dituzte erleak?

Neguan trankil laga behar dira, ezta jaso eta euren tratamendua eman eta gero. Udan, polena jaso nahi baduzu egunero joan behar zara, baina bestela hobe lan egiten lagatzea. Bertara zozazenean estresa sortzen diezu eta pikatzera badatoz eztena galtzen dute eta hil egiten dira. Suizidioa eragiten duzu.

- Zergatik daude gero eta erle gutxiago?

Alde batetik Varroa dago. Kumeen janaria jan eta kumeari berari gorputz atalak jaten dizkio. Gainera, Varro bakoitzetik bi jaiotzen dira, beraz, hazkunde esponentziala du. Gaur egun ia derrigorrezkoa da koko horren aurkako tratamendua ematea. Bestalde, pestiziden garai oso potentea egon da, horren eragina intsektuetan aztertu barik, eta honek erle kopurua bajatzea eragin zuen. Azkenik liztor asiatarikoa dago.

- Liztor horrek zer nolako mina egiten die erleei?

Alde batetik, erleak jaten ditu. 60.000 erle dituztenean, 1.000 erle galtzeak ez du eragin handirik. Arazoa da erleak beldurtu egiten direla, eta ez dira erlauntzetatik irteten. Horren ondorioz ez dute ezta jasotzen, ondorioz ez dute jatekorik, ondorioz ez dute arraultzarik ipintzen, ondorioz ez da erle berririk jaiotzen... eta azkenean erlauntza hil egiten da. Orain, gainera liztor mandarinoak dator, Japonetik. Honek jaten du erlea, ezta, polena, larbak... dena.

- Zergatik da garrantzitsua erlea gizakiarentzat?

Alde batetik, erlea da polinizatzaile nagusienetarikoa.

Landare eta fruta-arbola askok euren fruitua egiteko erlea behar dute. Beste animalia askok fruitu horiek jaten dituzte, hala nola erleak.

- Zer egin dezakegu erleak babesteko?

Baserri txikiek kontutan hartu behar dute zer nolako pestizidak erabiltzen dituzten, eta loraldi sasoiaren pestizidarik ez botatzea oso lagungarria izango litzateke. Bestalde, liztor asiatarikoa kontrako tranpa bat jartzea ez litzateke soberan egongo: ardi zuri, garagardo eta ahabia-zukua botila baten barruan ipini eta listo. Harrapatzen direnak, harrapatuta.

Dorleta Vidal



Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELKETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK

PROBALEKU 3-943170563
ERMUA

ZERMIK

SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Damaris Pan, artista:

“Gaur egun artea ez dago publiko orokorrari zuzenduta”

Berlinen eta New Yorken bere lana garatu izan badu ere, Bilbon dauka bizilekua Damaris Panek. Oleo artean gau eta egun, Bilboarteko bekaduna da, eta EHUko Arte Ederretako fakultateko irakaslea.

- Margolaria, artista, irakaslea... Zure zereginen artean, zeinek dauka pisurik handiena?

Nik praktikoki egiten dudana da pisu handien daukana, badakidalako ez dudala berau sekula utziko. Irakasle izatearena, aldiz, zirkunstantziala da. Oso gustura nago ere bertan, eta asko laguntzen dit nire lanerako. Baina nire ardatz nagusia artelana da.

- Sortzaile esparru horretan, zertan zabilta egun?

Bilboarte Erakundeak hainbat estudio ditu Bilbon, eta 10-12 beka ematen ditu urtero espazio horiek erabili ahal izateko. Bakoitzak bere proiektuak garatzen ditu bertan, eta urtea bukatuta koan, erakusketa egiten da.

Aurten beka eman didate, eta nire proiektua lantzen ari naiz.

- Zertan datza proiektu hori?

Iazko udan AEBetan egon nintzen beste beka batekin. Hilabeteko beka izan zen, eta ez zidan eman denborarik aurkeztutako proiektuan sakontzeko. Eta horretan nabil gaur egun Bilboarten, iazko zenbait gauza lantzen eta garatzen. Ez da hainbeste desberdintzen orain arte egin dudana margotik, nire lanek jarraipen bat izaten dutelako beti.

- Eta nola definituko zenuke zure marga?

Azken urtetan egin izan dudana pintura mota oso gertu dago eskultura izaeratik, espazio eta materia ulertze-

ko moduan. Figuraziotik asko aldentzen joan da, oso plano geometrikoak edo materialerakoak izan direlako. Paraleloki nik beti egin izan dut marrazki asko, arkatzez, bizkor, eta orain bi mundu horiek uztartu nahian ari naiz.

- Zeintzuk material erabiltzen dituzu?

Oleoa erabiltzen dut gehien bat, eta kapa asko ipintzen ditut. Modu esperi-

mentalean egiten dut lan, ez dut kopiatzen errealitatek zuzenean. Horren ordez, gertatzen den zerbaiten gainean, interesatzen zaidana mantentzen dut eta bestea sakrifikatu. Horregatik nire margoek geruza asko dituzte, eta dentsitate nahiko handia.

- Zein da zure inspirazioa?

Inspirazioa ez da existitzen, mito bat da. Egun onak eta txarrak dituzu. Ga-



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORDINDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

CAPRI
PIZZERIA

943 03 33 15

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

rrantzitsuena da lana modu konstantean egitea. Estudioan egon behar zara, eta ikusi behar duzu zer gertatzen ari den, erabakiak hartzen joan ahal izateko. Batzuetan gauzak gertatzen dira; beste batzuetan ez da ezer gertatzen, eta burumakur zoaz etxera.

- Eta zerk bultzatzen ditu erabaki horiek?

Edozer izan daiteke, eta gauza guztien nahasketa aldi berean. Egunean dituzun bizipen guztiak ere batu egiten dira. Inoiz oso zehatza ere izan daiteke. Etengabe erre egote kontua da, eta praktikan zer gertatzen zaizun ikustea. Baina ez da erabaki kontu bat, ikuste kontua eta pakto kontua. Elkarriketa egon behar da beti: nora doan lana, nora nahi dut nik joan, eta non gelditzen garen.

- Uste duzu jende arruntak artea ulertzen duela?

Ez, uste dut modu orokor batean ez dela jasotzen niretzat jaso beharko litzatekeen. Baina gaur egun ez dago artea publiko orokorrari zuzentzeko nahia, edo beharra. Artearen munduan daudenak dira interlokutoreak, batez ere. Lan egiten dudanean badakit pertsona batzuk adituak direla, kritika egin ahal-ko dutela, edo ulertuko dutela zer egiten ari naizen erabiltzen dudan lengoiairekin. Beste batzuk, ordea, oso azalean geratuko dira, eta dauzkaten erremintekin

epaituko dute artelana: gustatzen zait, ez zait gustatzen, kolore polita du... Arte formakuntza ez daukatenak ez dira gai zertan ari garen jakiteko. Baina hori da errealitatea, eta ohituta gaude.

- Kritikak onartzen dituzu?

Zaila egiten zait topatzea nor edo nor zeinetaz fidatu kritika mailan. Norbera bere lanean sakon ari denean, oso zaila da kanpotik datorren bat sakontasun maila horretatik kritika egin ahal izatea. Bi pertsona daude artea ulertzeko modu beretsua dutenak eta nire lana eurekin komentatzen gustatzen zait. Haien kritikak onartzen ditut eta asko balio didate. Hala ere, urteekin irizpide propioa sortzen duzu, eta bada-kizu noiz, nor eta nola nahi duzun zerbait izatea. Elkarriketa hori lana eta nire buruaren artean dago.

- Arteak zoriontsu egiten zaitu?

Umm, esango nuke artea dela egunerokotasunean zoriontsuen egiten nauena. Baina zoriontasun erlatiboa da, ez dudalako sinisten erabateko zoriontasunean.

- Noiz disfrutatzen duzu gehiago, sormen prozesuan murgilduta zaudenean, edo behin lana bukatuta ikusten duzunean?

Disfrute maila ezberdinak dira. Sortzen ari zarenean, ez dakizu hortik zerbait aterako den edo ez. Bizipen horrek bizio izaera du. Tentsioan man-



tentzen zaitu, eta bukatutakoan berriro bueltatu nahi duzu. Nik dezente sufritzen dut, oso obsesiboa naizelako. Lana erdibidean daukadanean, luzatzen bada, eta ez bazait ezer irteten, arazoa etxera daramat, eta loa kentzen dit. Sufrimendu eta plazerra ematen du. Bukatutakoan, satisfakzioa oso handia da, baina badakizu laster prozesu hori errepikatu egingo dela. Bestalde, erakusketak egitea da gutxien gustatzen zaidana. Protokolo handia dago, ez naiz hain aske sentitzen, ez nago eroso. Lanak erakutsi nahi ditut, baina aldi berean esaten dut: "Zertarako ikusi nahi dituzte?" Ez dakit, kontraesana sortzen dit.

- Erraza da artetik bizitzea?

Ez. Euskal Herrian oso zaila da, ia ezinezkoa. Ehuneko oso txikia dago, Itziar Okariz, esaterako. Euskal Herriko instituzioek erakusketak izateko bideak eta bekak eskaintzen ditu, eta ekonomikoki zirkuito baten sartu zaitzke, eta urte batzuk bizi-

raun. Baina ez dago kolekzionistarik, galeriak ixten ari dira... Eta zirkuito hori amaitzen duzunean, ez dago beste irteerarik.

- Artelanak salgai dituzu?

Bai, eta saltzen ditut, baina ezin zara horretan ekonomikoki oinarritu. Hilabete batean bi lan saldu ditzakezulako, baina hurrengo 6 hilabetetan ez duzu ezer saltzen.

- Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ez dut horretan inoiz pentsatzen. Etorkizuna hau da, oraina. Ni oso langilea naiz, eta nahi dut beti tailerrean sartuta egon, lanean. Ez dut pentsatzen zer egin nahi duan artelan horiekin, salduko ditudan, edo aspaldidanik webgunea izan beharko nuen... Alde batetik hori ona da, nire lanean sakontzen ari naizelako; baina komertzialki txarra da, badakidalako jarrera honek nekez eramango nauela erakusketak mota batzuetara. Nire izaera da, eta ez zait inporta.

Dorleta Vidal



Maiatzaren 17a, LGTBI fobiaren kontrako eguna

Irakasle eta HH eta LH-ko ikasleekin sentsibilizazio eta kontzientzia-zio lanetan ibili ginen, ipuinak, bideoak eta familia eredu ezberdinak landuz. Maiatzaren 17 egunari aldarrir egiteko, ikastetxeko espazio batzuk koloreztatu genituen eta mezu batzuk idatzi genituen: “aniztasuna aberastasuna”, “naizen bezalakoa izatea gustuko dut”, “zarena zara”, “maitasuna da bidea”, “aske izan nahi dut”... Oraingo honetan, paperean koloreztatu eta mezuak idazteaz gain, mezu eta ostadar koloreak (LGTB banderaren koloreak) horman eta lurrean adierazita utzi nahi izan dugu gure egunerokotasunean aniztasuna, askatasuna, errespetua... presente izateko. Aske bizi, aske maite!



Irteeraz irteera



4 eta 5 urteko ikasleak Lekeition egonak dira. Bi eguntxo besterik ez dira izan, baina hor erronka gogorra zegoen batzuentzat: lagunartean eta guraso barik estreineko aldiz lo egitearena. Egunez, gustura: hondartzan, arraunean, portuko lasun arrainak eta txalupak ikusten... Gauzez gero, diskoteka eta linterna-festa... Batzuk kontu-kontari eta esnarik egoteko ilusioa izan arren, nekea eta emozioa tarteko, aidean hartu zituen loak. Hurrengo txanda 1. eta 2. ziklokoena izan da, Gorziera, eta 3. zikloko neska-mutilak ere Zuhatzako irla bertatik-bertara ezagutzeko aukera izan dute. Azken egunerako Debako hondartza eta zapoerretako izozkia guzti-guztion zain dago!

Lehendakariaren bisita Mallabiko Eskolara Nahiko programaren berri izateko

Gure ikasleek azken lau urteetan “Nahiko programak” eskaintzen dituen unitate didaktiko eta material ezberdinak eskura izan dituzte. Egindako lana zuzenean ezagutzeko asmoz Iñigo Urkullu Lehendakaria, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria eta Maitte Alonso Hezkuntza sailburu ordea bertaratu ziren. Programa honek berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza du oinarri. Helburu nagusia neska eta mutilen ahalmenak modu integralean garatu ditzaten lortzea da, rol eta estereotipoak alde batera utzita. Nahiko-n hiru zutabe jorratzen dira: ikasleak, irakasleak eta familiak, behar den eraginkortasuna bermatuz.

Arrate Egaña idazlearen bisita



Urtero gure ikastetxean eskal idazle baten bisita izaten dugu. Aurten, maiatzaren 10ean, Arrate Egaña etorri zen 2. eta 3. zikloko ikasleek irakurritako liburuen inguruan solasaldia egitera.

 **esonline**[®]



☎ 846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

🌐 esonline.es



Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

 **Meka**
Lanbide Eskola

AURREMATRIKULA EKAINAREN 3TIK 14RA
FORMAKUNTZA ESKAINTZA 2019-2020

GOI MAILA

Metal erainkuntzak
Haur-Hezkuntza
Automozioa
Administrazio eta finantzak

ESKAITZA PARTZIALEAN


Erizaintzako Zaintza Osagarriak
Soldadura eta Galdaragintza
Gizarferatzea
Automozioa

ERDI MAILA

Makinariaren elektromekanika
Mendekotasun egoeran dauden pertsoneri arreta
Administrazio kudeaketa
Soldadura eta Galdaragintza
Erizaintzako Zaintza Osagarriak
Ibilgailuen elektromekanika
Karrozeria

www.meka-elgoibar.net 943 748 019 bulegoa@meka-elgoibar.eus

Udal hauteskundeak 2019ko maiatza



Juan Carlos Abascal



Beatriz Gámiz



Ricardo Martín



Rosa María Cid



José Manuel López



Beatriz Blanco



Miguel Ledesma




Jol Gisasola



Arritokieta Araiztegi



Silvia Serrano



Miren Urionaguena



Paul Yarza



Carmen del Río



Joanna Díaz



Julen Domínguez



Ainhoa García



Francisco Javier Sánchez

Ermuko zinegotziak

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITURRI

Hauteskundeetako emaitza konparatuak (ERMUA)

2015

Hautesle-errola: 12.971

	Botoak	%
PSE-EE	2.530	31,57
Bildu	1.227	15,28
EAJ	1.145	14,26
Ahal Da	1.132	14,10
PP	844	10,51
Irabazi	735	9,15
Ciudadanos	293	3,26
Baliogabeak	99	1,22
Zuriak	123	1,53
Boto emaitzak	8.128	62,66

2019

Hautesle-errola: 12.658

	Botoak	%
PSE-EE	3.347	39,96
EAJ	1.792	21,39
Bildu	1.494	17,84
Elk. Podemos	845	10,09
PP	712	8,50
Vox	111	1,33
Baliogabeak	56	0,66
Zuriak	75	0,89
Boto emaitzak	8.432	66,61

1. SEKZIOA

VI. Centenario 9-19/10-12, Santiago 1-3/2-4, Probaleku 3-5/2-6, Torrekoa 1-2, Zerukoa 2. Kalea 1, Zubiaurre 5-31.

	2015		2019
PSE-EE	198	PSE-EE	228
Bildu	126	Bildu	156
EAJ	88	EAJ	135
Ahal da	89	Elk. Podemos	60
PP	48	PP	48
Irabazi	59	Vox	2
Ciudadanos	14		
Baliogab.	4	Baliogab.	6
Zuriak	4	Zuriak	4

Ermuko datu ofizialak sekzioz sekzio

2. SEKZIOA

Gipuzkoa etorb, 9-13/7-41/50-80

	2015		2019
PSE-EE	207	PSE-EE	334
Ahal da	77	Elk. Podemos	40
PP	72	PP	50
EAJ	66	EAJ	60
Bildu	49	Bildu	53
Irabazi	39	Vox	3
Ciudadanos	25		
Baliogab.	3	Baliogab.	3
Zuriak	7	Zuriak	7

3. SEKZIOA

Gipuzkoa etorb. 6-48

	2015		2019
PSE-EE	292	PSE-EE	444
Ahal Da	136	Elk. Podemos	75
PP	97	PP	77
EAJ	85	EAJ	124
Irabazi	55	Vox	14
Bildu	54	Bildu	66
Ciudadanos	34		
Baliogab.	30	Baliogab.	8
Zuriak	9	Zuriak	6

4. SEKZIOA

Abeletxe 1-23/2-24, Bizkaia etorb. 2-6, Erdikokale 1-21/2-10, Erdikokale zeharbidea, Gipuzkoa etorb. 1-5, Goienkale 2-10/3-5, Iparragirre 1-13BIS, Izelaieta 1-21/2-40, Komentukua 1-3, Valdespina 4-8/1-5, Orbe 9-11/10, Santiago plaza 1-2, Zubiaurre 2-4.

	2015		2019
PSE-EE	211	PSE-EE	335
Bildu	182	Bildu	221
EAJ	141	EAJ	233
Ahal Da	109	Elk. Podemos	104
Irabazi	102	Vox	12
PP	66	PP	52
Ciudadanos	30		
Baliogab.	13	Baliogab.	5
Zuriak	10	Zuriak	6

5. SEKZIOA

Goienkale 12, San Isidro 1-15, San Roke 1-15/2-12, Santa Ana 1-2-3 kaleak, Elorreta bidea 1-9.

	2015		2019
PSE-EE	140	PSE-EE	161
Bildu	96	Bildu	119
EAJ	86	EAJ	118
Ahal Da	56	Elk. Podemos	46
PP	49	PP	55
Irabazi	40	Vox	7
Ciudadanos	20		
Baliogab.	8	Baliogab.	3
Zuriak	7	Zuriak	4

6. SEKZIOA

Goienkale 41-43, Okinzuri 1-13/2-4, Errekalde bidea, Zerukoa 1-2-3 kaleak, Zubiaurre 35-39/44-52.

	2015		2019
PSE-EE	211	PSE-EE	284
Bildu	99	Bildu	124
Ahal da	96	Elk. Podemos	83
PP	84	PP	76
EAJ	78	EAJ	149
Irabazi	67	Vox	3
Ciudadanos	25		
Baliogab.	7	Baliogab.	7
Zuriak	10	Zuriak	7

7. SEKZIOA

Aldapa 2-8, Errabalburu, Ongarai.

	2015		2019
PSE-EE	222	PSE-EE	281
Bildu	109	Bildu	156
Ahal Da	107	Elk. Podemos	105
EAJ	102	EAJ	157
Irabazi	88	Vox	12
PP	81	PP	73
Ciudadanos	30		
Baliogab.	6	Baliogab.	3
Zuriak	12	Zuriak	5

8. SEKZIOA

Andaluzia zeharbidea, Bizkaia etorb. 8, VI Centenario 1, Diputazio 3-13, Komentukua 2, Valdespina 7-9/8BIS-16, Probaleku 7, San Inazio, Zeharkale 2-24.

	2015		2019
PSE-EE	306	PSE-EE	382
Bildu	177	Bildu	206
EAJ	175	EAJ	263
Ahal da	139	Elk. Podemos	93
PP	133	PP	108
Irabazi	64	Vox	24
Ciudadanos	31		
Baliogab.	25	Baliogab.	8
Zuriak	27	Zuriak	9

9. SEKZIOA

Areitio bidea, Bizkaia etorb. 1-35, Ureta baserria, Zeharkale 1-33.

	2015		2019
PSE-EE	261	PSE-EE	333
Ahal da	134	Elk. Podemos	84
EAJ	92	EAJ	151
Bildu	82	Bildu	99
PP	82	PP	62
Irabazi	65	Vox	11
Ciudadanos	35		
Baliogab.	12	Baliogab.	4
Zuriak	17	Zuriak	10

10. SEKZIOA

Cantabria zeharbidea, Orbe 5-7/2-8, Goienkale 7-39, Karabixa, Zubiaurre 12-40.

	2015		2019
PSE-EE	195	PSE-EE	225
Bildu	115	Bildu	139
EAJ	105	EAJ	172
Ahal da	75	Elk. Podemos	65
Irabazi	67	Vox	10
PP	63	PP	56
Ciudadanos	21		
Baliogab.	8	Baliogab.	3
Zuriak	8	Zuriak	6

11. SEKZIOA

Aldapa 1-19, VI Centenario 5-7, Diputazio 8-14, San Pelaio 5-15/2-42.

	2015		2019
PSE-EE	287	PSE-EE	340
Bildu	138	Bildu	155
EAJ	127	EAJ	230
Ahal da	114	Elk. Podemos	90
Irabazi	89	Vox	13
PP	69	PP	55
Ciudadanos	28		
Baliogab.	9	Baliogab.	6
Zuriak	13	Zuriak	11

Mallabiko zinegotzi berriak



Igor Agirre



Mikel Barruetabeña



Ainhoa Mugarza



Ainhara Fernández



Jaime Telleria



Aitor Ferreño



Aitor Loiola



Esti Arrizabalaga



Estibalitz Katarain



HAUTSKUNDEETAKO EMAITZA KONPARATUAK

2015

Hautesle-errola: 989

	Botoak	%
EAJ	325	47,38
Bildu	322	46,94
PSE-EE	26	3,79
Baliogabeak	16	2,28
Zuriak	13	1,90
Boto emaileak	702	70,98

2019

Hautesle-errola: 948

	Botoak	%
EAJ	454	60,21
Bildu	283	37,53
PSE-EE	14	1,86
PP	1	0,13
Baliogabeak	3	2,28
Zuriak	2	1,90
Boto emaileak	752	79,85

Hauteskundeen data: 2019ko maiatzaren 26a.

* Portzentaia kalkulatzeko ez dira boto baliogabeak kontuan hartu.

KOORDINAZIOA: Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK: Roberto Tejada eta Valentin Mugarza.

INPRIMATEGIA: Gertu Koop (Oñati).


TIRADA: 2.425 ale

*Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Ermuko Udalak
eta Mallabiko Udalak diruzlagundutako aldizkaria.*



GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
 Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
 - Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Etxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 86 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK
BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
 www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36, 3º 48200 Ermua-Bizkaia

ETXETRESNAK
**Egaña**
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA
**BETA**
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• Proiektuak • Kalefakzioa
• Instalazioak • Gaueko tarifa
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak
Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA
**ROTEK**
rótulos
• Argi errotuloak • Irudi korporatiboa
• Autoendako errotuloak • Neoia
• Barne errotulazioa • Inpresio digitala formato handian
Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behe (Mallabia)
T/F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



Ekainaren 23an burutuko da San Juan sua

San Juan gau magikoetan gertatu ohi den bezala, aurten ere sua piztuko da herriko plazan. Su horren inguruan hainbat ekimen burutuko dira, Euskal Birusa Euskara Elkarteak eta Txindurri Dantza eta Txistu taldeak elkarlanean antolatuta. 22:00etan Akelarrea ibrintzi lehiaketa San Juan Kantua Korro Dantzak 23:30etan Suzko Zezena ANIMATU ZAIETEZTE!!

San Juaneko kanta abestuko da. Bukatzeko, 23:30ean gutxi gorabehera, suzko zezenak astinduko ditu plazako bazter guztiak.

Andoni Pérez ermuarrak irabazi du 2019ko Urrezko Pintxoa



Kiska tabernako Andoni Pérez gazteak irabazi du aurtengo Bizkaiko Pintxo Txapelketa, maiatzaren 16an Euskalduna Jauregian burututako finalean. Bizkaiko 16 sukaldarik hartu zuten parte finalean, eta horietatik 4 ermuarrak izan ziren: Andoni bera, Sagarrako Jesus González, Pata Negrako Rubén Cruz eta Giroako Roberto Vega. Azkenean

Pérezek lortu zuen garaipena, berak sortu eta sukaldatutako *Taconazo* pintxoari esker. Gainera, Mendiola tabernako José Manuel Rodríguezek txapeldunorde izan zen Pintxo Tradizionalen atalean. Bestalde, sukaldari hauek (beste sukaldari eta herritar askoren artean) apirilaren 13an egin zen paella erraldoiaren antolaketan partu hartu zuten. Zaporeak proiektu solidarioaren baitan garatutako ekimen honi esker, 4.000€ eta 4.000 kilo arroz eta dilista jaso ziren Ermua eta Eibar artean. "Honi esker, dena galdu dutenei laguntza eskaini ahal izango diegu", esan du antolatzailetako bat den Mireia Alonso sukaldariak.

C1 AZTERKETAK ORDEZKATUKO DU EGA AZTERKETA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak EGA azterketa kendu berri du, eta horren baliokidea den C1 azterketa egin beharko dute euskara maila hori frogatu nahi dutenek. HABEren C1 azterketa Hizkuntzen Europako Marko Bateratuaren titulu eta ziurtagirien estandarrean sartzen da. Ermuko euskaltegiek argitu dutenez, aipatutako C1 azterketa prestatzeko eskolak emango dituzte hemendik aurrera.

ANDONI ALDAPEK IRABAZI DU FRONTENISEKO TXAPELKETA

25-23 irabazi zuen Andoni Aldape mallabitarrak eskualdeko frontenis txapelketa, Asier Markiegi elgoibartarraren kontra. Hurrengo asteetan futbolareto txapelketa, frontenis txapelketa bikoteka eta Mallabia Cup burutuko dira Mallabian, Mallabia FTak antolatuta.

ArmeriaEskola^x

Isasi 36, EIBAR · 943 203 244

[T](#) [F](#) [V](#) [I](#)

www.armeriaeskola.eus

aurrematrikula ekainaren 3tik 14ra

NAZIOARTEKOTZA AUKERAK
Europa/Mundurako beka
Zikloak ingelesez

ESPE ZIALI ZAZIOAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK

automatizazio robotika ARI
telekomunikazioa informatika STI
elektronika MET

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

elektrizitatea IEA

LAN AUKERA ZABALA
Enpresa harreman estua

METODOLOGIA BERRITZAILEAK
Erronketan oinarritutako talde lana

DUALA
Ikasketak eta lana ustartuz

GERTUKO HARREMANA eta ORIENTAZIO PROFESIONALA

ELEKTRONIKA

mekatronika MIT
diseinu mekanikoa DFM
produkzioa fabrikazio mekanikoan PPFM

METROLOGIA

mekanika MEC

Hostión, leku-izen baten bitxikeriak

Zugastietan, La Arboledan antzinako meategietako ustiapena uztean, lur azpiko urak azaleratu eta laku naturalak sortu dira denborarekin, paisaia berezi eta harrigarria osatuz. Jatorri pekuliar honetako hainbat putzu ditu herriak eta euretatik ezagunena edo behintzat erretratatuena Hostión izenekoa da. Manuel Arriaga, Eitzagako seme baten gaitzizena gogoratzen du berorrek.

Egunpasa baten planak eraman ninduen Meatzalde hartara. Eguraldi kaxkarragatik paseatze asmoak atzeratu behar eta kasualitateak jarri ninduen parera etorritako aldizkaritoxa irakurtzen, noiz atertuko zain. Ekoetxearen, Meatzaldeko Ingurumenaren Interpretazio Zentroaren argitalpena zen. Lehen orrian bertan sorpresa harrigarri bat zain zegoen: Zalduan jaio, baina Ermuan bataiatua izan zen gizon baten berri ematen zuen. Handik egun batzuetara lortuak nituen behar-beharrezko kontaktuak; ondorengo lerroek, han argitaratutakoa eta familiar-tekoen gogorapenek dute oi-

nari.

XIX. mende amaieran lehergailuak erabiltzen hasi ziren burdin-minerala atera ahal izateko, sarritan lurrazpiko akuiferoen maila freatikoraino iritsiz. Lanerako traba egiten zuten urok xurgatu behar izaten ziren, urbonben bidez. Askoz geroago, meataritza ekoizpena jeitsi eta ustiapena uztean, lurpeko urok bere horretan gelditu, euri-urekin nahastu eta hainbat putzu sortu ziren. Zugastietan bertan, besteak beste: Blondis, Parkotxa eta Hostión. Putzuen izendapenaren jatorria dela-eta, Parkotxa da euretatik leku-izena den bakarra, Blondisek bere aldetik gara-



Manuel Arriaga bere familiarekin, jezarrita eta txapela jantzita.

bia bat dakar akordura eta Hostionen kasuan, meategi horretako enkargatu bat du inspirazio-iturri.

Dirudienez "Hostión" deituriko gizona langileburu zen meategian, euskal hiztuna eta bere kargu zeuden beharginak mehatxatzeko edo lanerako xaxatzeko, "¡O trabajar o dar hostión!" espresioa erabiltzeko ohitura zuena. Dena den, ez dago horrenbeste adostasunik "Hostión" benetan zein zen

esateko orduan. Ekoetxean hogeitaz jasotako testigantzen arabera, Manuel Arriaga Amestirena zen aukide eta langileek gehien aipatzen zuten izena. Are gehiago, izena gogoratzen ez zutenen arteko batzuk bai gogoratzen zuten Eibar edo Ermu aldekoa zela. Idatzizko dokumentuen xehetasun eta ziurtasunik gabe, ahozkoetara jo behar eta hauetan oinarrituta Manuel da entzute handiko "Hos-



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferretería
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Desiak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzordua: 688 85 18 95



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Horacio Decoración
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

tion" hura izateko zantzu gehien dituenak.

Zaldibartar eta ermuar

Manuel Maria Arriaga Amesti, Eitzaga auzoko Bizinai baserrian jaio zen 1861ko ekainaren 20an. Pedro eta Ana Juaquinaren 7 seme-alabetatik, laugarrena izango zen bera. Bere jaiotetxea arlo zibiletarako Zalduako barrutikoa izan arren, espiritualean Ermuari zegokion eta mutikoa Santiago Apostoluaren parrokiari izan zen bataiatua. Beraz, zaldibartarra zen jaiotzaz eta ermuarra elizaz. Gazterik hil zitzaizen aita, Manuelek 13 urte besterik ez zituela, eta aitxitxa ere hilabete batzuk lehenago. Han lana gogor egin beharko zen!

Pedro Joaquin anaia zaharrena maiorazkoaren ardura hartu eta baserriaren kargu geratu zen; gainontzekoek lanaren bila atera eta Meatzaldera daramakigu Bizinai-ko hiru anai-arreben arrastoak. Burdinaren ustiaketa pil-pilean zegoen eta lan aukera zabala eskaintzen zen Bizkaiko mutur gorrixka hartan, gertuko eta urruneko inmigrazio uholdeei lekua eginez. Gazterik iritsi zen Manuel paraje haietara eta 1885ko uztailaren 11an, 24

urteko jornalari zela, Abanto-Zierbanako Santa Juliana elizan 20 urte zituen Juana M^a Ugarteburu Mendicute markinarrarekin ezkondu zen. 7 seme-alaba izan zituzten, Abanto-Zierbanan, Zugaztietan eta Ortuellan jaiotakoak. Zugaztietan Compañiaren etxe multzoetan biziko ziren, meategietan agintezko lanpostuak betetzen zituzten pertsonentzat eginiko haietan.

Bere gaineko bizpahiru agiri idatziren berri ematen du Ekoetxeak. 1900ko baten, Trapagarango alkateak Manuel baimentzen du Zinpeko Zaintzaile lege lan egiteko Orconera deitutako zazpi meategitan, Carmen izeneko beste hirutan eta Mame, Precavida, Parcocha eta Magdalenan. Bestalde, 1924ko Udal Padroian "empleatu" bezala erregistratua dator, 10 pztakoa. izanik eguneko bere soldata. Hirugarren dokumentu batek sasoi-ko prentsara daramakigu eta Hostión Putzuarekin erlacionatuta agertzen da: 1926ko otsailaren 5eko La Lucha de Clases astekari sozialistan argitaratzen denez "el sábado pasado, en los trabajos del pozo "Hostión", el encargado Manuel Arriaga, dijo a los obreros que a ver quién quería trabajar el domingo. Todos menos uno callaron y había más de 40, y el que habló dijo que si no se abonaba el tanto por ciento de lo que correspondería no estaba dispuesto a trabajar; los demás no contestaron ni negativa ni afirmativamente, por lo que comprendió el encarga-



Hostión Putzua eta haren gaineko Zugastieta herria.

do que asientian a lo manifestado por su compañero, y furioso, les amenazó con que el que no fuera el domingo a trabajar sin ninguna clase de recargo, el lunes quedaría despedido. Ante esta amenaza, no tuvieron la entereza necesaria para sostener lo manifestado por el que habló, aunque les gustó mucho, y el domingo no faltó ni uno solo".

Ezezaguna Eitzagan

Mikel Carús santurtziarra Manuelen hereniloba da eta, entzute eta argazki hutsez ezagutu bazuen ere, bere izaera gogorra eta zorrotza azpimarratzen du, bizitzan aurrera egitea egokitu zaien pertsonen kemena aldean, beti ere bere sasoi-ko gizarte eta bizi izandakoaren isla.

Bizinain, ostera, ez zuten bere berri eta harriduraz jaso zuten. "Ene, gizon dotoria, horraz bigotiaz!" izan ziren Floren Arriagaren berbak argazkia ikustean. Bere aitxitxa Pedro Juaquinen anaia zen Manuel eta, akordura ekarri zuten zelan euren aitxitxak burdin-arrabioa ekar-

tzen zuten Arboleda ingurutik, burdina eta kareharria nahaste dituen mineral trokua, urtu aurretikoa. Gurdi eta idiekin joaten zen Pedro Juaquin langai bila, egunak emanez joan-etorrian; ekarritako arrabioa inguruan urtzen zuten gero. Eitzagako palazio pareko ortua Zepataixa edo Zepamendixa deitzen diote auzokoek, zepia izanik burdina urtu osteko hondakina, *escoria* erderaz. Sasoi baten atxurkada bakoitzeko, lurrarekin nahaste, zantzu gorrixkak gordetzen zituzten harri beltzak azaleratzen zitzaizkien ortuan beharrean zenbiltzane. Palazioaren erakinak berak ere burdinarekin lotutako aspalidiko legatu batez egiten digu berba, tarteka zepa zati beltzak ageri direlako atzeko etxe-horman. Harlandua falta zela? Ba gertuen zegoen harria sartu tarteka eta aurrera! Mendek atzeragoko bizimodu baten aztarnak topatu ditugu Eitzagan, Manuel Arriagak agian umetatik ezagutzen zuten burdinari lotutako ofizio baten lekuko.

Estibalitz González



Bizinai, Eitzaga auzoan, bere jaiotetxe izandako baserria.

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ileapaindegia

Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

%100 ama

Feminismoa "modan" dagoela entzuten ari garen egun hauetan, alboko herrian egoitza daukan saltoki erraldoiaren "amaren egunerako" publizitate kanpainak 1950eko hamarkadara eramantzen gintuen bat batean: %97 besteei emana, %3 berekoa, %0 kexatua, %100 ama.

Askok haserre bizian jarri ginen, baina gaur egun gizartearen barneratutako amatasun irudi ideala ez da hain ezberdina. Emakume heteroa, ezkondua, etxeaz, haurrez eta bere lanbidez primeran arduratzeko gai dena. Eten gabeko zerbitzari eta Superwoman arteko funanbulista itzela.

Baina hau aldatzear dago. Amatasunak sortzen dituen desparekotasun guztiak desagertzear daude: gobernuak aitatasun baimena zortzi astera luzatzea erabaki du, eta amatasun eta aitatasun baimenak parekatzeko egutegi bat zehaztu du. Beraz, listo! Dena konponduta, ez? Amatasuna nahi dugun moduan bizitzeko eta lanean aurrera egiteko giltza aurkitu dugu.

Lan mundua alde batera utzita, etxean (bikote heteroetan), amatasunean, oraindik oso argi ikusten da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna. Bikotearen egunerokotasunean eta alderdirik barne-barnekoetan bereziki,



Alicia Lorenzo

sarritan kolokan jartzen da bikoiteak aurretik adostutako berdintasun-ituna. "Aitatasun" baimenaren luzapenarekin aukera paregabea ematen zaie gizonei haurren lehenengo zaintza horretan gehiago inplikatzeko, baina oraindik asko dago egiteko. Aitatasun baimenak luzatzea beharrezkoa zen, bai, baina soilik honekin benetako erantzukidetasuna lortuko dugu?

Ezinbestekoa da orain arte ikasitako guztia, desikastea. Familia ezberdinak daudenez, antolatze-ko erak ere, ezberdinak izango dira, denak baliogarriak. Baina prest al gaude amatasun eta aitatasun rola aldatzeko? Eta hau ezin da legez arautu.

“Aitatasun baimena luzatzea beharrezkoa zen, baina soilik honekin benetako erantzukidetasuna lortuko da?”

FUB Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. **EIBAR**. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. **BILBO**. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí

SAN PELAYO
HORTE KLINIKAK Y CLINICA DENTAL

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI CIL nº 1264

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea tol-doarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarak orduka. © 662 012 834.

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarak orduka. Jaurlaritzako titulua eta eskarmen-tua. © 603 514 085.

ALOKAIRUA

Abuztuaren 18tik irailaren 15ra. Donostian, Antiguu auzoan. Hondartzatik 5 minutu-ra. 55metro karratu, berriztatuta, igogailuarekin. 2 logela, komuna, egongela, jangela, sukaldea eta Wifi. Hamabostaldia : 1600€ Angel © 699 027 734.

LAN ESKAINTZA

Laguntzailea behar da Elgoibarko ile-apaindegi batean. Berehala lanean hasteko. Jardun erdia. Nerea © 943 24 62 25.



Ekainaren 9an
Zorionak Yham, onena opa dizugu zure bizitzan. Maite zaitugu zure gurasoak, aitona-amonak, izeko-osabak eta lagunak. Ondo pasa maitea.



Ekainaren 12an
Zorionak Eider! Aita, ama, Irati, osaba, izeko, aitona eta amamaren partez!!! Muxu handi bat etxe-ko denon partez, ondo pasa eguna!!!



Maiatzaren 28an
Zorionak Naroa eta oso ondo pasa zure 7. urtebetetzean! Musu handi bat familiaren partez.



Ekainaren 4an
Zorionak Oihan! Ondo pasa zure 2. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partez.



Ekainaren 5ean
Zorionak Iزارo! 11 urte!! Askok maite zaitugu!! Eder, aita eta ama.



Ekainaren 27an
Zorionak Hodei zure 5. urtebetetzean!!! Muxuak etxekoekin partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: Ekainaren 17a.



Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- | | | |
|----------------------|----------------------|--------------------|
| - Luis Cañas familia | - Pazo Señorans | - Txakoli Akarregi |
| - Añada Real | - Vicente Gandia | - Milana |
| - Yllera taldea | - Oriol Rossell | - La Loca Juana |
| - Gomez Cruzado | - Astobiza txakolina | - nitida |

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MALLABIA 1960

Argazki hau 1960 urriaren 9an atera zen. Bertan agertzen direnak Abendibar Etxebarriko Martina Uriarteren despedida ospatzen ari dira. Martinarekin batera agertzen dira: Evarista Gallastegi, Dolores Gallastegi, Eusebia Ganboa, Josefa Unzueta eta Maria Urkidi.



ERMUA 1953



Akihito, Japongo enperadore abdikatu berria, urte horretako uztailean Madrilera bidean Donostiara eginiko bisitan, frontoietako giroa zuzenetik ezagutzeko aukera izan zuen. Argazkian, Urumea frontoiaren platean, Ignacio Onandia, "Ermu" eta Agirrebengoa palis- tei eskua estutzen biak jokatu- tako partidaren ostean, jokoan erabilitako pala opari gisa jasoz. Inguruan daude, protoko- lo eta ziurtasun neurri handie- girik gabe, Gipuzkoako Diputazioko lehendakaria, Japongo enbaxadorea... 19 urte eta oraindik Japongo printze zen Akihito; orain bere seme Naruhitorengean utzi du kargua, 30 urtez enperadore izan oste- an.



IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90


peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Duela urtebete inguru abiatu zen Ermuan zaborrak biltzeko sistema berria, txartel bati lotuta dagoena. Uste duzu sistema egokia dela?



Bai: 30 boto / Ez: 58 boto.


Maiatzaren 20tik 24ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 88 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

Uste dut ondo dagoela txartela erabiltzearen sistema, baina kontenedoreak ez dira erosoak. Pedal moduko sistema batekin hobetuko zen.

Piedi Eizagirre

Ez da batere eroso, pedala, edo zoezer beharko lukete ireki ahal izateko ikutu gabe.

Irantzu Barrondo.



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Ertrailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Dejate QUERER
BERRIA ERMUA

MUSIKA

Hilak 1:

Kontzertua: Versionarios.
19:30ean. Martxoaren 8ko plazan. Sarrera doan.

Hilaren 17tik 20ra:

Kontzertuak: Alboka musika eskolako ikasleak. 19:00etan. Lobiano kulturgunean.

Hilak 21:

Kontzertua: Alboka musika eskolako ikasleak (Alboka eguna). 22:00etan. Antzokian. Doan.

Hilak 28:

Aurre-elektrojaia: musika elektronikoa. 18:00etatik aurrera. Martxoaren 8ko plazan.

Hilak 29:

Elektrojaia: musika elektronikoaren jaialdia. Betiondoko aparkalekuan.



ERAKUSKETAK

Hilaren 2ra arte:

Argazkiak. Anaitasuna ikastolak 50. urteurrena. 18:00etatik 20:00etara. Lobiano kulturgunean.

Hilaren 3tik 15era:

Margoa: Udal Margo Eskolako ikasleen lanak. Lobiano kulturgunean. Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara.

Hilaren 17tik 30eera:

Margoa: Mugartea taldearen lanak. Lobiano kulturgunean. 18:00etatik 20:00etara.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 7 eta 14an:

Haurrentzako jolasak: Barixakuetan. 17:30ean. Orbe kardenalaren plazan.

DANTZA

Hilak 1:

Txindurri eguna: Dantza poteoa, dantza erakustaldia, erromeria, Larraindantza. 12:30etan. Orbe kardenalaren plazan.

Hilak 2:

Txindurri eguna: Kalejira, dantza erakustaldia, herri bazkaria, plaza dantzak. 11:00etan. Orbe kardenalaren plazan.

BESTELAKOAK

Hilak 6:

Ermuko Ikastetxeetako ikasleen bertso jaialdia. 17:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera doan.

Hilak 8:

Kulturen arteko jaialdia: hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera. Orbe kardenalaren plazan.

Hilaren 10etik 15era:

Gastronomiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.

Hilak 15:

Gastronomiari buruzko azoka. 11:00etatik aurrera. Plazan.

Hilak 15:

Gava irekia: hainbat ekitaldi. 22:00etatik aurrera.

Hilak 16:

Kale margo lehiaketa. 9:00etatik aurrera.

Hilaren 21etik 23ra:

Food trucks-en topaketa. Plazan.

Hilak 22:

El Rocioko erromeria. Betiondoko aparkalekuan. 11:00etatik aurrera.

Hilak 23:

San Juan sua: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskara klaseak · clases de euskera



UDAN

ERE

EUSKARA

ZURE

BIZITZAN!

18/19

Matrikula epea zabalik

www.udaleuskaltegiak.eus

**UDAKO
EUSKARA
IKASTAROAK**

**Matrikula
zabalik**

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

IKASTARO TRINKOA

Irailaren 2tik 27ra

MATRIKULA ZABALIK

Ekainaren 28ra arte

**AZTERKETA OFIZIALAK
URRIAN**

MAILAK

B1 (1. maila)

B2 (2. maila)

C1 (3. maila)

BULEGO ORDUTEGIA

9:00etatik 13:00etara

eta 17:00etatik 20:00etara

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina

Goienkale, z/g 2. Solairua

Tf.: 943 17 09 25

euskaltegia@udalermua.net

Udako euskara ikastaroak
eta barnetegiak 2019

udan, arinago

aek euskara
praktikoa



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK
Azterketak prestatzeko
ONLINE-IKASTAROAK ERE BAI!



2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA-ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO



FAMILIA-BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

udabarnetegiak@aek.eus

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

C1 (EGA) deialdi irekia

Matrikulaldia: ekainaren 26tik uztailaren 9ra

Idazmen proba: irailaren 14an

IKASTARO BEREZIA | 80 ordu

uztailaren 1etik 12ra

irailaren 2tik 13ra

Diruz lagunduak
EUSKALTEGI HOMOLOGATUA

Zearkale 16, behea Ermua · 943 17 19 40 · kaltxango@aek.eus